




Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,6 hazi zen

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko apirila. Mila




Iturria: Gizarte Segurantza.

Apirilean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,6 gehitu zen aurreko urtearen aldean. Tasa hori aurreko bi hilabeteetan erregistratutakoaren oso antzekoa da. Guztira, 982.490 afiliazio zeuden, serie historikoko bigarren zifrarik onena, 2008ko uztaileko 982.935en ondoren. Igoera zertxobait handiagoa izan zen emakumeen artean (%2,9).

Langabezia erregistratua %9,0 gutxitu zen apirilean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko apirila. Mila




Iturria: SEPE.

Lanbideren bulegoetan 115.554 langabe zenbatu ziren apirilean, 2021eko hil berean baino %9,0 gutxiago. Azken hamalau urteetako apirileko zifrarik txikiena da, nahiz eta 2008ko erregistrotik urrun jarraitzen duen. Jaitsiera nabarmenagoa izan zen gizonen artean (-%11,2) emakumeen artean baino (-%7,2).



EAEko IPIa %4,6 hazi zen martxoan

Industria ekoizpena
Urte bakoitzeko martxoa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustatek jakitera eman duenez, Euskadiko industriaren ekoizpena %4,6 hazi zen martxoan, aurreko urtearen aldean. Horri esker, bi urteko susperraldia gertatu da, eta lortutako zifrak 2018an eta 2019an erregistratutako balioetara hurbildu dira. Nabarmentzekoa da ekipamenduko ondasunen eta energiaren ekoizpenaren bilakaera ona.

Euroguneko langabezia tasa %6,8ra jaitsi zen martxoan

Euroguneko langabezia tasa
Portzentaia



Iturria: Eurostat.

Eurostatek ezagutarazi duen informazioaren arabera, euroguneko langabezia tasa %6,8ra jaitsi zen martxoan. Aurreko urtearekiko jaitsiera 1,4 puntukoa izan da. Alemaniako (%2,9), Maltako (%3,0) eta Herbehereetako (%3,3) datu onak nabarmentzen dira. Beste muturrean aurkitzen dira Espainia (%13,5) eta Grezia (%12,9).